

Alarma gorria euskaldun zaharrok eragin dugu

Euskara hitz egiteko aukerarik ezean, sortu zen Berbalaguna (Mintzalaguna, Mintzakide izenak ere baditu) egitasmoa. Euskara ikasten ari direnek euskaldun zaharrekin hitz egiteko aukera izan dezaten. Zenbaitzuk, Lea-Artibaiko Berbalagunak kasurako, euskaldun zaharron falta nabari dute. Dirudienez, euskaldunak onak gara garrasi egiten edozein injustiziaren aurrean, aldiz, horrelako ekintza txikietan ez dugu behar adina oihu egiten. Jakin badakigu, ordea, eguneroko ekintza txikiek hobetu dezaketela euskararen egoera.

Maidor Beldarrain

Argazkiak: Iñigo Azkona

LEA-ARTIBAI EUSKAL HERRIKO eskualde euskaldunena dela maiz entzun behar izan dute eskualde honetako AEK-ko arduradunek. Euren erantzuna ordea, bestelakoa da: “Berbalaguna egitasmoa aurreko urteko maiatzean abian jarri genuenetik gabiltza euskaldun zaharren premian. Batzuek uste dute Lea-Artibai (Bizkaia) bailara euskalduna izanik, ezer gutxi dagoela egiteko, uste dugu euskara salbu dagoela. Oker dabil hori dioena...”.

Berbalagunan euskaldun berriak bezain beste behar dira euskaldun zaharrak, baina azken horien falta dela-eta *Alarma gorrian* izeneko kanpaina jarri zuten martxan eskualdean. Kanpainarekiko erantzuna ordea, ez zen izan espero bezain ona. Hutsune horren arrazoiertako batzuk euskaldun zaharron denbora



Bea Anitua, Luis Egurrola, Iban Rekalde eta Alberto Castillo.

falta eta konpromiso eza izan ziren. Bea Anitua programa honetako arduradunetako bat da eta berak dioenez, “mezu deigarri baten bila joan ginen, eta uste dugu inpaktantea izan arren, ez zuela lortu guk nahi genuen guztia. Euskaltzaleen arreta nahi genuen lortu, eurak konturatzeko guztiok egin behar dugula lan euskaragatik, nahiz eta, kontrako iritziak ere entzun genituen, esanaz euskaltzaleok beti biktimarenak egiten gaudela”.

Egia da euskara ikasten dabilenak ez lukeela arazo handirik izango Euskal Herriko txoko batzuetan euskaraz

ikasitakoa praktikan jartzeko, baina Berbalagunak bestelako zerbait eskaintzen du. Iban Rekalde ondarrutarra egitasmo honen arduradunetako bat da eta bere aburuz, “Berbalagunaren bidez bi pertsona ezezagun euskaraz hitz egiten hasten dira, baina horrez gain, euskaldun berriari bestelako mundu bat ezagutzeko aukera ematen diogu. Ziurrenik ordu-rarte arrotza zaion euskal kultura barneratzen saiatzen gara”.

Bertako euskaldun berri baten-tzat euskara ikastea zaila bada are zailagoa da etorkinentzat. Iban

Berbalagunak: Luis Egurrola eta Alberto Castillo

Ez zuten elkar ezagutzen, baina hori ez da izan oztopo azarotik aurrerako ostegun guztietan elkarrekin ordu batez berriketan jarduteko. Biak Markina-Xemeinen bizi arren asteko gainontzeko egunetan oso bizitza ezberdinak daramatzate. Modu batean ala bestean, euskarak elkartu ditu. Orain, Berbalagunako bikote dira, eta euren nahia euskaraz hitz egitea da. Luis Egurrola markinarrak irakasle lanak egiten ditu eta Alberto Castillo basauriarra bere euskara hobetzen saiatzen da. Egurrolak barre egin du esanaz: "Gustuko dut andereño lanak egitea, baina nik uste nuen euskaraz ezertxo ere ez zekien batekin jarriko nindutela, etorkinekin edo... Albertok badu maila apur bat".

Luis Egurrola edozertarako prest dago, eta berehala antzematen zaio edonori laguntzeko prest dagoen horietakoa dela, ez da ezerekin belhurtzen. Alberto Castillo lotsatiagoa



Luis Egurrolak (ezkerrean) laguntzen dio Alberto Castillori (eskuinean) ikasitakoa praktikan jartzeko.

da, eta hitz bakoitza esan aurretik ongi pentsatzen du: "Duela zortzi urte ibili nintzen euskaltegian eta ariketak besterik ez genituen egiten. Nik euskaraz hitz egin nahi nuen eta orain gutxienez astean behin egin dezaket". Ordubete horretan euskaraz berba egiteaz gain bestelako gauzak ere egiten dituztela gehitu du Egurrolak: "Berria irakurri eta albisteei buruz ere hitz egiten dugu. Hala ere, niretzat satisfaziorik han-

diena Albertok zerbait ongi esaten duenean izaten da". Castillok bere lagunari entzun dionean, ondorengo erantzun du: "Ni ez naiz hasi euskara ikasten lanagatik edota behartuta nagoelako, baizik eta uste dudalako gure herrian garrantzitsua dela euskara jakitea. Gainera, euskara jakinik jende gehiago ezagutu ahal izan dut". Luis Egurrola ere gustura dago AEK-ren egitasmo honetan parte har-

tzeaz, eta euskaldun zaharrei gonbitea zabaltzen die. Irribarrea ahoan, honakoa esan du: "Edonork pentsa dezakeena baino askoz ere errazagoa da. Pazientzia apur batekin eta irakasle lanetan jarduteko gogoia izatearekin nahikoa da. Hori besterik ez!".

Pazientzia izanez gero, astean ordu bat libre izanez gero eta jendea ezagutzeko gogoia izanez gero, zu ere Berbalaguna izan zintezke.

Rekaldek honakoa gehitu du: "Etor-kinei euskara ikasteko gogoia pizten zaie, gure gizartearen gehiago barneratu ahal izateko".

Etorkinak arraunean

Bikoteka euskaraz hitz egiteaz gain, bestelako formatu batzuk ere lantzen dituzte. Rekalde eta Anituaren uste-tan, "sarritan hobe izaten da euskara ikasi nahi duena herriko erakunderen batean sartzen bada. Elkartea kon-prometitzen bada askoz ere arinago ikasten da euskara. Esan liteke zehar-ka barneratzen direla euskal mun-duan". Ondarruko Arraun Elkartearen adibidez hainbat etorkin arraun egiten ibili ziren. Rekaldek irribarrez gogora-

tu du: "Batzuek eskuetan babak ikusi-ta utzi egin zuten, beste batzuek, ordea, oraindik jarraitzen dute".

**"Berbalagunaren bidez bi
pertsona ezezagun
euskaraz hitz egiten
hasten dira, baina horrez
gain euskaldun berriei
bestelako mundu bat
ezagutzeko aukera ematen
diegu"**

IBAN REKALDE (AEK-KO ARDURADUNA)

Euskaldunon militantzia falta

Berbalagunan, beste hainbat alorre-tan bezalaxe, militantzia falta nabari da. Bea Anituak dioen legez: "Eus-kal munduarekin oso sentsibilizatua dagoen jendeak hartzen du parte horrelako programetan, baina guk edonoren beharra dugu". Euskara ikasteko gogoia euskaldun berriek jartzen dute, euskaltegiek irakasteko baliabideak eskaintzen dituzte, eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera guk eman behar diegu. Euskaldun zaharrok lagundu behar diegu liburu artetik atera eta kalean euskaraz berba egiten. n

Babeslea: Hernaniko Udala



Hernaniko Udala

Euskararik egokiena, erabiltzen dena
www.hernani.net